

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

2296

EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 9koa, Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakaria, zeinaren bidez adierazten baita bete gabe geratzen dela erakunde honetako izendapen askeko lanpostu huts baterako deialdia.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3.c) artikuluan eta Lehiaren Euskal Agintaritzako zuzendariaren 2019ko otsailaren 28ko Ebazpenaren hirugarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorritik (2019ko apirilaren 2ko EHAA), ebazpen horretan goi-kargudunaren idazkariaren lanpostu huts bat izendapen askez betetzeko deialdia iragarrita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Betetzeke uztea Lehiaren Euskal Agintaritzako goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua (520010 kodea eta 182 dotazioa) betetzeko deialdia.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta, kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2019ko otsailaren 9a.

Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakaria,
ALBA URRESOLA CLAVERO.